

PUNTU ETA KOMA, PARENTESIA ITXI.

2006, Erroma.

- Isa! Etorri janzten laguntzera mesedez, ezin ditut galtzerdiak jarri eta.
- Banoa ama. Nire ustez laguntzaile bat behar duzu, ez zara bakarrik janzteko gai eta!
- Bai eta zera ere! Ederki moldatzen naiz bakarrik.

-Kaixo, egunon Ana.

-Kaixo Isabel.

- Badakizu ama ez dela bakarrik moldatzeko gai eta laguntzailereren bat baduzun galdetzera nator.
- Bueno, egia esan bi neska ditut, berriak dira lan honetan baina fidatzekoak dirudite.
- Ea ba; esan bietako bati, zure ustez amari egokien etorriko zaionari, arratsaldeko seieta Alaska izoztegia geratuko garela.
- Ongi da, baina lehenengo zure amaren izen abizenak eta jaiotze data eman beharko didazu.
- Maria Rosario Garmendia Etxeberria; 1942ko uztailearen 26a.

Arratsaldeko seiak, Alaska izoztegia.

- Kaixo zu Isabel zara ezta?
- Kaixo, bai Isabel naiz- neska argal eta altu batek deitu nau, egia esan ez da batere itsusia, eta fidatzekoa dirudi, nahiz eta 20 urte eduki- pentsatzen du Isabelek bere onerako-. Zein da zure izena?
- Onatu.
- ...

Hizketaldi egin ondoren, Isabel; amaren etxera itzuli da.

- Kaixo ama!
- Epa Isa, zer moduz eguna? Lan asko?
- Bai ama, bai. neska bat aurkitu dut zuri laguntzeko.
- Bai zera! Ni inoiz baino hobeto nago, ez dut inoren laguntzarik behar!
- Ez zara bakarrik janzteko gai eta.
- Ez dago ama inola ere konbentzitzerik!- pentsatzen du Isabelek bere onerako.

2011, Erroma.

- Kaixo, ama, kaixo Onatu!
- Epa Isa, zer moduz?
- Ondo, ondo. Zer, prestatu al duzue bazkaria?
- Bai noski, makarroiak entsaladarekin bazkalduko dugu gaur.
- ...

Harrigarria da, duela lau urte hasi zen Onatu ama zaintzen, eta jada familiakoa dirudi; Gabonak ere guzti gurekin ospatzen ditu, eta hori gutxi balitz, Olentzerok oparia uzten dio urtero amaren etxean.

“I’m at a payphone, trying to call home, all of my change I spent on you. Where are the times gone, baby it’s all wrong where are the plans we made for two...”- Isabelen mugikorrera deika ari dira.

-Bai? Nor da?

-Kaixo Isa, ama naiz.

-Bai ama, zerbait pasatzen al da? Zer nahi duzu?

-Azken aldi honetan etxeko giroa arraro samar sumatzen ari naiz; arrautzak lehenago bukatzen hasi dira, txokolatea ere ... Ez dakit, susmo txarra hartzen diot.

-Jesus ama, zu ere arrautzak kontatzen hastea ... Tira, ez dut uste ezer pasatuko ez denik.

- Hitz egingo dugu, gero arte.

-Agur bai, agur.

Arratsaldea neurologoan.

-Kaixo! -Isabel Erromako aditu batengana joan zen ama burua galtzen ari zelakoan.

-Egun on. Ea ba, zein da zure arazoa?

-Ez, ez. Nik ez daukat inolako arazorik, nire ama da. Azkenaldi honetan, oso gauza arraroak esaten ditu, eta batez ere bere laguntzaileaz susmo txarrak ditu. Arrautzak eta txokolatea falta direla esan dit! Normala al da?

-Ez, ez da normala ez. Argi dago, alzhemerraren lehenengo sintomak direla.

-Zer??? Eta zer egin beharko nuke?

-Begira, oraingoz, psikologia terapia bikain egiten duten batzuegana bidaliko dugu ea fruiturik ematen duen, eta gero gerokoak. Zu lasai, oso psikologo adituak dauzkagu gai hauetarako.

Hurrengo goiza, amaren etxean.

-Kaixo ama! Zurekin hitz egin nahi nuen lehen komentatu didazun gai horretaz. Alde batetik, Onaturi jai eman diot gaur arratsaldean zurekin egongo naizelako. Eta beste aldetik nire bizilagun batek psikologiako titulu bat atera duela esan nahi nizun eta oso ona omen da. Txokolatearena eta arrautzena kontatu didazunez, terapia arraro horietako bat egin dezakezula pentsatu dut.

-Beno beno. Horixe bakarrik falta zait, orain psikologo batengana joatea. Ezta pentsatu ere!

-Tira ama! Ez dela eroetxea! Hitz egitera eta lasaitzera bakarrik joango zinateke.

-Beno, kasu horretan, agian, joango naiz; baina probatzeko bakarrik e!

“Harrigarria da ama horren inuzentea izatea! Geroz eta errazago ari naiz konbentzitzen! Egia esan hori da nahi dudana edo hoberena iruditzen zaidana; beno egia esan ez dut nahi psikologo batengana joatea, baina behar duena bada ...” -pentsatzen du Isabelen bere onerako, erabat nahasirik.

Hurrengo goiza, psikologoaren kontsultan:

-Kaixo Rosa, zer moduz?

-Egun on, ondo esan beharko ...

- Zure alabak, gutxi gorabehera gertatzen zaizuna azaldu dit, baina orain zuk azaltzea nahi dut.

-Ikusi, ez da ezer larria.Niretzat lan egiten duen neska bat daukat; janzten laguntzen dit, bazkaria prestatzen dit ... Jada bost urte nago berarekin! Baina azken aldi honetan, oso arraro dabil. Egia esatea nahi baduzu ez zaio bost urte hauetan horrelakorik pasatu, eta horregatik kezkatzen naiz. Gainera, izozgailuan arrautzak falta dira, txokolatea lehenago bukatzen da ...

Izaskunek ez zekien nola jokatu; nahiko berria zen lan honetan eta oraindik ez zitzaion horrelako kasurik agertu. Emakumea pixka bat jota zegoela pentsatzen zuen, baino tira ez zen hainbesterako. Hori bai, kontaktzen ari zitzaion istorioa barrez lehertzeko modukoa zen!

-Beno ,kasu hau berria da niretzat, baina gaur egun edozertarako metodoak daude.

-...

Ordu beteko saioaren ondoren Rosa nahiko izututa atera zen, gauza arraro asko esan zizkiolako eta ez zuelako tutik ere ulertzen. Baina Izaskunek esan zionez, terapia berriak dira eta normala izango zelakoan, normal normal jarraitu zuen terapietara joaten.

Handik hilabete batera.

-Onatu, bihar goizean ohi baino goizago esnatu beharko zara niri laguntzeko, Vatikanora noa eta mezetara.

-Ongi da, zer ordu aldera esnatuko zaitut?

-Goizeko zortzietan gutxienez. Horren ordainez, egun guztia libre utziko dizut.

-Eskerrik asko benetan. Ez dago arazorik ez, zortzietarako gosaria prest edukiko duzu.

Hurrengo goiza, amaren etxea.

-Onatu! Onatu!

-Banoa!

-Soberan dakizu nire etxean atea irekita egiten dela lo. Ondo al zaude? Azkenaldian arraro samar ikusten zaitut.

-Ondo nago bai, zera ... hilerokoarekin umore aldaketak edukitzen ditut eta ez nago oso umore onez. Ai ama! Gosaria prestatzea ahaztu ez zait ba! Oraintxe prestatuko dut benetan.

-Ez duzu prestatu beharrik, duela ordu eta erdi esnatu naiz eta gosaldut jada.

-O ez, sentitzen dut, berehala gosaldut du eta janzten lagunduko dizut.

-Onatu, ez dakit benetan zer gertatzen zaizun, ez jarri hilerokoaren aitzakia, jada bost urte daramadalako zurekin eta ez zaizu ezer antzekorik gertatu inoiz.

-Ez da ezer benetan, berehala jantziko naiz.

Baina Rosa ez zen lasai geratu. Onatuk bere gelako atea apur bat irekita utzi zuen eta ohea ez zegoen goizero bezala eginda; arraro baizik: oheko mantak lurra ukituz zeuden, ohe azpian zegoena ez ikusteko moduan.

Etiketetik ateratzen hasi zirenean, Rosak bere “plana” martxan jarri zuen.

-Onatu, gauza bat ahaztu dut etxean, zuk itxaron hemen eta oraintxe etorriko naiz.

Rosa etxean sartutakoan, Onaturen mugikorra hartu zuen eta bere mezuetara joan zen zuzenean. Pertsona beraren mezu asko zituen, mezu berriena hartu eta irakurtzen hasi zen: “tqm amr mio, ;) (L.” Eta zer arraio izango da hori? Puntu eta koma, parentesia itxi...

Ez zuen tutik ere ulertzen. Ohe azpian begiratzea erabaki zuen. Beraz, bere bastoia mesanotxean utzi zuen eta makurtzen hasi zen, baina imajina daitekeen bezala, Rosa ez zegoen 20 urteko neskatila bat bezala makurtzeko moduan. Bueno, egia esan makurtu zen kostata. Maindire guztiak altxa eta ohe azpian begiratu zuen, eta hantxe, bere begien aurrean zegoen Onaturen umore aldaketa guztien arrazoia. Onaturen mutil-laguna ohe azpian zegoen ezkutatuta!

-Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!!!!!- Rosak izugarrizko oihua bota zuen eta berehala, Rosaren ondoko bizilaguna atean zegoen zer gertatzen zen jakiteko irriketan.

Onaturen mutil-laguna etiketik korrika atera zen eta Rosak Felix-i (ondoko bizilagunari) dena kontatu ondoren, Onaturekin harremanetan jartzen saiatu ziren, eta baita Isabelekin ere.

Kostata, baina lortu zuten Onaturekin hitz egitea. Arraroa badirudi ere, Rosa, Onaturi beste aukera bat ematen saiatu zen egia guztia kontatzekotan. Baina Onaturi lotsa handia ematen zion, eta beste laguntzaile bat bilatu behar izan zuten.

“I know is hard to remember, the people we used to be ...” -Isabelen mugikorrera deika ari dira.

-Bai? Nor da?

-Isa, ama naiz!

-Bai ama, zer nahi duzu?

-Ez duzu sinetsiko! Onaturi buruz nituen susmo txarrak agerian geratu dira.

-Zer?

-Txokolatea, arrautzak ... benetan falta zirela! ...

Rosak istorioa guztia kontatu zion Isabeli, eta bera aho zabalik geratu zen. Ezin zuen sinetsi entzuten ari zena. Oso lotsaturik sentitzen zen, bere amak burua ez zuela ondo eta psikologoaren terapietara eraman izanagatik.

Eta batez ere, konturatu zen, denok garela gizakiak, eta gizaki guztiak nahasten garela oso adituak izan arren.

Xabier Muriel